

## Satorralaia denuncia el incumplimiento del proyecto por las afecciones de la obra del metro

---

SATORRALAIA :: 11/10/2019

### **Satorralaia denuncia el incumplimiento del proyecto por las afecciones de la obra y anuncia una nueva iniciativa:**

Donostiako Metroaren igarobidearen obrak egiteko San Martin kalean iragarri duten mozketa dela-eta, Proiektuan aurrikusitako neurriak ez betetzea eta hirigunean eragindako afekzioak areagotzea salatzen ditu Satorralaia bizilagunen mugimenduak. Izan ere, Eraikuntza-Proiektuaren arabera Erdialde-Kontxako geltokiaren "*sarbideen eraikuntza dela-eta trafiko oso handiko kaleak kaltetuko direnez*", zenbait neurri ezarri dira eta espreski dio: "*No solapar las obras de los cañones desde la calle Loiola y desde plaza Xavier Zubiri evitando de esta forma una afección generalizada al tráfico rodado en el centro de la ciudad. Por lo tanto, el cañón desde Xavier Zubiri se construirá en una primera fase y el cañón desde calle Loiola en una segunda*" (ikus atxikita bidaltzen dizuegun Mirakontxa-Easo tartearen Eraikuntza-Proiektuaren Memoriaren 5.13.2.1 "Obras correspondientes a la estación de Concha" puntua). Alabaina, Udalak joan den urriaren 3an iragarritakoaren arabera, San Martin kalea datozen asteetan gutxienez urtebeterako itxiko da Loiola kaleko sarbidearen obrak egiteko, eta obra horiek "*gutxienez datozen apirilera arte*" Xabier Zubiri plazako sarbidea eraikitzeke Easo kalean Londres Hoteletik hurbil duela urtebetez geroztik luzatzen ari diren lanekin batera egingo dira.

Donostiako hiri-erdialdean barrena lurrazpiko metro bat eraikitzea zentzugaberia hutsa izateaz gain, Satorralaiak Udalari galdegiten dio: zergatik uzten du proiektuan agindutako neurriak ez betetzea, Donostiako bizilagunen interesak eta ongizatea defendatu ordez?

Metroaren pasantea hiriko mugikortasuna hobetzearen ikuspegitik zeharo behargabekoa da eta Donostian egiten ari diren jarduera urbanistiko erasokorrenen artean nabarmentzen da edonondik. Udal agintariak eta kudeatzaileak hirian diharduten enpresa eraikitzaileen eta lobby ekonomikoen esanetara agertzen duten morrontza salatzen dugu beraz.

### **Satorralaiak ekimen berri bat iragarri du:**

Satorralaiak aurki ekimen berri bat egingo du bestalde. Ekimen honen baitan Alemanian sute-arriskuen prebentzioan aditua den Hans Heydemann injeniarria Donostiara etorriko da, hain zuzen ere Donostiako Metroaren egitasmoan tunelen segurtasunaren arloan nahiz bidaiarien eta pertsona gutxituen ebakuaziorako baldintzen inguruan antzeman dituen araudi-urraketa larriei buruz landu duen txostena aurkezteko. Aditu alemaniarrak urriak 22 astearte goizean prentsaurreko batean emango du txostenaren berri (prentsaurrekoaren ordua eta tokia zehaztuko dira) eta urriak 23 asteazkenean arratsaldeko 7etan "METROAREN PASANTEA: TRANPA HILGARRIA?" izenburpean hitzaldia emango du Okendo Kultur Etxean (Gros), txostena jendaurrean aurkezteko.

Ekimen horren inguruan informazioa luze eta zabal emango dugu datozen egunetan.

## **Satorralaia bizilagunen mugimendua**

Informazio gehiago: [www.satorralaia.wordpress.com](http://www.satorralaia.wordpress.com)

---

### **(Metroari STOP) Satorralaia denuncia el incumplimiento del proyecto por las afecciones de la obra y anuncia una nueva iniciativa:**

El movimiento vecinal Satorralaia denuncia que el corte al tráfico de la calle San Martín anunciado por las obras de la pasante de Metro incumple lo dispuesto en el Proyecto y agrava las afecciones en el espacio urbano. En efecto, el Proyecto Constructivo señala que *"dado que las interferencias debidas a la ejecución de los cañones de acceso afectan a calles con un tráfico muy importante"* en el caso de la estación proyectada en Centro-La Concha, se han adoptado medidas entre las que establece expresamente: *"No solapar las obras de los cañones desde la calle Loiola y desde plaza Xavier Zubiri evitando de esta forma una afección generalizada al tráfico rodado en el centro de la ciudad. Por lo tanto, el cañón desde Xavier Zubiri se construirá en una primera fase y el cañón desde calle Loiola en una segunda"* (citación del Punto 5.13.2.1 "Obras correspondientes a la estación de Concha" de la Memoria del Proyecto Constructivo del tramo Miraconcha-Easo, que os enviamos en el archivo adjunto). Sin embargo, según lo anunciado el pasado día 3 de octubre por el Ayuntamiento, la calle San Martín va a cerrarse próximamente al tráfico durante al menos un año por las obras del cañón de acceso desde la calle Loiola y estas obras *"se solaparán al menos hasta el próximo mes de abril"* con las obras del cañón de acceso desde la plaza Xavier Zubiri, que vienen ejecutándose en la calle Easo desde hace un año en las proximidades del Hotel Londres.

Además de que la construcción de un metro subterráneo por el centro de Donostia es un despropósito, desde Satorralaia preguntamos: ¿Por qué tolera el Ayuntamiento estos incumplimientos en lugar de defender el interés y el bienestar de los/as vecinos/as de Donostia?

La obra de la pasante de Metro es totalmente innecesaria en términos de mejora de la movilidad urbana y resalta en todo caso entre las actuaciones urbanísticas más agresivas que están afectando a la ciudad. Denunciamos por ello el servilismo de los políticos y gestores municipales que ponen el espacio urbano a disposición de las constructoras y lobbies económicos que operan en la ciudad.

### **Satorralaia anuncia una nueva iniciativa:**

Satorralaia anuncia por otra parte una nueva iniciativa que desarrollará en las próximas fechas. Esta iniciativa contará con la participación del ingeniero alemán y experto en prevención de incendios, Hans Heydemann, que vendrá a Donostia para presentar el informe que ha elaborado sobre los graves incumplimientos de las recomendaciones establecidas en materia de seguridad en túneles ferroviarios y de condiciones de evacuación de viajeros/as y personas discapacitadas que ha descubierto en el proyecto de la pasante de

Metro. El experto alemán presentará el informe en una rueda de prensa que se realizará el martes 22 de octubre por la mañana (se detallará la hora y el lugar) así como en una conferencia organizada el miércoles 23, bajo el título "PASANTE DE METRO: ¿UNA TRAMPA MORTAL?", a las 19h en la Casa de Cultura de Okendo (Gros).

Informaremos más ampliamente de esta iniciativa en los próximos días.

### **Movimiento vecinal Satorralaia**

---

*[https://www.lahaine.org/mm\\_ss\\_est\\_esp.php/satorralaia-denuncia-el-incumplimiento-del](https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/satorralaia-denuncia-el-incumplimiento-del)*